



PRINTZIPIOEN ETA BALIOEN GUTUNA



Aurkibidea

Aurkezpena

5

Ekintza-Printzipioak

6

Xedea eta Ikuspegia

9

Balioak

11

EGE Batzordea

12

Konpromisoak

13



PRINTZIPIOEN ETA BALIOEN GUTUNA





MAGNAn konprometituta gaude enpresa-jardueraren kudeaketa arduratsuarekin eta gure printzipio eta balioen aplikazioarekin.

Osotasuna, gardentasuna, erantzukizuna, talde-lana eta profesionalakiko, hornitzaileakiko, bezeroakiko eta gainerako kolaboratzaileakiko begirunea dira funtsezko premisak gure enpresaren epe ertain eta luzeko etorkizun jasangarrirako.

Bikaintasuna bilatzen dugu gure produktu eta zerbitzuetan eta, horretarako, pertsona-talde bikaina dugu: gure langileak.

Urte hauetan lortutako lorpenek eta Magna sostengatzen duten balioek eratzen dute lortutako arrakastaren oinarria eta bezeroekin etorkizuneko negozio-harremanak izaten jarraitzeko behar den konfiantza sortzen dute.

Kudeaketako erabateko gardentasuna baliatzen dugu barneko eta kanpoko konfiantza sortzeko bitarteko gisa eta giza kapitalaren aldeko apustua egiten dugu, aukera-berdintasuna eta haien garapen profesionala eta pertsonala sustatuz.

Eta hori guztia gure lan-ingurunearekin dugun konpromiso gorena ahaztu gabe. Traktore-lana egiten dugu gure haran eta herrien garapen sozioekonomikoan eta haietako bizimoduaren dinamizazioan.

Gutun honen helburua enpresa handi honetan egunero parte hartzen duten eragile guztiei gure ikuspena eta balioak eta, ondorioz, negozioetan dugun etika ezagutaraztea da.

Horiei guztiei esker existitzen gara eta aurrera egiten dugu.

Javier Creixell Catalán
Zuzendari Nagusia

"Gure arrakastaren oinarria gure jendea da"

GURE EKINTZA-PRINTZIOAK

Gure erabakiak eta gure eguneroko jardunbide profesionala honako printzipio hauetan oinarritzen dira, **Roullier Taldearekin** bat, haren kide baikara:

ERRESPETUA, ERANTZUKIZUNA eta OSOTASUNA

ERRESPETUA

Magnesitas Navarras konprometuta dago pertsonen oinarrizko eskubideen errespetuarekin eta, batik bat, bere kolaboratzaileen arteko errespetuarekin. Ziur gaude gure garapena pertsona guztien eskubideak errespetatuz soilik izan daitekeela jasangarria eta, horregatik, printzipio hori gure jardunbide profesionalen esparruan egunero aplikatu dadin ahalegintzen gara eta errespetuz, gizalegez eta begirunez jokatzeko gure benetako bezeroen, bezero potentzialen, hornitzaileen eta azpikontratatzaileen aurrean.

ERANTZUKIZUNA

Magnesitas Navarras indarrean dauden arau eta erregelamenduen arabera jokatzeko du. Gure jardueren dute inpaktuaren jakitun, segurtasun-eredu boluntarioa eta arduratsua aukeratu dugu nahasitako talde guztiekiko. Halaber, ingurumenaren mesedetan aritzen gara gure jardueren sor ditzaketen ingurumen-inpaktuak minimizatzeko programen bitartez.

OSOTASUNA

Osotasunez eta zintzotasunez jokatzeko dugu, aplikatu beharreko lege eta erregelamenduen arabera. Eskualdeko, estatuko eta nazioarteko esparruetan onartutako kontabilitate- eta zerga-arauak betetzen ditugu eta iruzur- eta ustelkeria-mota guztiak prebenitzea eta detektatzea gure lehentasunen mailarik gorenera igo ditugu.



XEDEA

Magnesitas Navarras erreferentziazko enpresa da mundu osoan siderurgiako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta ingurumeneko industrietarako magnesio oxidoan oinarritutako soluzio eta materialen bertikalki txertatutako ekoizle gisa.

Lurraldea erabat errespetatuz egiten ditugu erauzketa- eta produkzio-jarduerak, jardunbide jasagarriak erabilia ingurumenarekiko konpromiso sendoarekin.

Bikaintasuna lortu nahi dugu gure produktu eta zerbitzuetan eta oreka-eredu izan nahi dugu lehengaiaren kalitatearen eta produkzio teknologiko, berritzaile eta abangoardiakoaren artean. Ikerketaren aldeko etengabeko apustuari esker, kalitate goreneko produktu paregabea sortzen dugu eta, zerbitzu saiatu eta pertsonalizatuarekin batera, gogobetetasuna eragiten dugu bezero guztien artean.


“MAGNAn konprometuta gaude gure ingurunearekin eta lan egiten dugun eremuen gizarte-ongizatearen eta garapen ekonomikoaren traktore izan nahi dugu”

IKUSPEGIA

Magnesitas Navarras meatzaritza jasagarriaren aldaketa-prozesuaren aitzindari izan nahi du. Horretarako, ingurunean erabat txertatzea hobetsiko du eta lan egiten duen eremuko balio ekologikoak eta biodibertsitatea babesten lagunduko du eragiketen aurretik, eragiketak egin bitartean eta eragiketen ondoren.

Konpromiso sozial nabarmenarekin, landa-eremuetako tokiko dinamismoa, enplegua eta bizimoduak aldeztu ditugu.







BALIOAK

GARAPEN IRAUNKORRA

Gure eredu ekonomikoa proiektu bideragarri eta iraunkorrean oinarrituta dago. Horretarako, lurraldearekiko errespetua lehenesten dugu eta jarduera-zonak lehenagoratzeko prebentzio-neurri eta eraberritze-plan egokiak txertatzen ditugu. Ingurumen Kudeaketako eta Kudeaketa Energetikoko Sistema Integrala dugu ezarrita, UNE-EN ISO 14001 eta UNE-EN ISO 50001 arauak betetzen dituen.

INGURUMENAREN BABESA

Gure industria- eta meatzaritza-jarduera guztiek estandar gogorrenak betetzen dituzte. ISO 14000 ziurtagiriak ditugu eta produktu deskontaminatzaileen saiakuntzan eta biodibersitatearen hobekuntzan ardaztutako ikerketa-proiektuak sustatzen ditugu. Horretarako, talde zientifiko propioa dugu eta lankidetzak akordioak profesional, institutu eta unibertsitate ospetsuekin.

“Gure sustraiak ahaztu gabe etorkizunean pentsatzen duen talde konprometitua gara”

BERRIKUNTZA ETA BIKAINTRASUNA

Ikertu eta berritu egiten dugu egungo eta etorkizuneko premiei erantzunik onena eman ahal izateko. Bertikalki txertatutako ekoizle gisa, MAGNAk etengabeko kalitatea eta hornidura bermatzen ditu, arreta pertsonalizatu eta bikaintasunera bideratutakoarekin batera. ISO 9001 eta GMP ziurtagiriak ditugu.

SEGURTASUNA

Gure enplegatuen, enpresa azpikontratatuena eta horien bezero eta bisitarien segurtasuna eta osasuna zaintzen ditugu. Enpresaren lehentasunezko konpromiso hori langile eta instalazio guztiei aplikatzen zaien Segurtasun eta Osasun Politikan islatuta dago. Esparru horretan, OHSAS 18001 ziurtagiria dugu.

GIZARTE-ERANTZUKIZUNA ETA KOMUNITATEAREKIKO KONPROMISOA

Duela 70 urte baino lehenagotik, MAGNAk Nafarroa iparreko industrialde gisa laguntzen du lan egiten duen komunitateari etorkizuneko aukerak eskainiz eta inguruko haranei bizia ematen dieten kultura-, kirol- eta gizarte-arloko jarduerak dinamizatuz eta sustatuz. Eta hori guztia, ingurunearekiko eta horren etorkizunarekiko errespetu eta konpromiso handienarekin.

EGE BATZORDEA

MAGNAko EGE Batzardea gure misio, ikuspen, balio eta jarduketa-printzipioekin bat datorren Gizarte Erantzukizunaren arloko estrategia zabaltzeko sortu da. Esparru horretako jarduketak planifikatzeaz, inplementatzeaz eta gainbegiratzeaz arduratuko den maila goreneko organo batez hornitu gara. Erakundeko kargu nagusien ordezkariak osatzen dute.

FUNTZIOAK

- EGE erakundearen estrategiarekin eta helburuekin lerrotatuta modu eraginkorrean ezarri, inplementatu eta mantentzen dela bermatzeko baliabideak (giza baliabideak eta baliabide materialak eta finantzarioak) bermatzea.
- Intereseko taldeekiko harreman- eta elkarrizketa-eredua onartzea.
- Helburuak eta xedeak beteko direla bermatuz egiten diren EGE arloko planak eta ekimenak gainbegiratzea. Erakundeari eragin diezaioketen lege-, gizarte-, lan- eta ingurumen-arloko arriskuak identifikatzea.
- Zuzendaritzari hobekuntzarako iradokizun, ekimen eta proposamenei buruzko aholkuak ematea.
- Kudeaketa etikoko eta Gizarte Erantzukizuneko politika berrikusi eta interpretatzeari buruzko erantzukizuna bere gain hartzea.

Bere printzipio eta balioen ildotik, MAGNESITAS NAVARRAS-ek bere gain hartzen ditu jarduketako honako KONPROMISO PUBLIKO hauek:



Jarduera arduratsua

Gure eguneroko enpresa-jarduerak honako haue-tan jartzen du arreta:

- Jardunbide arduratsuen bitartez helburu estra-tegikoak lortzen laguntzea;
- Konpainiaren eskaintzan eta produkzio-proze-suetan berrikuntza sustatzea, ingurumen-berri-kuntzan arreta jarritz;
- Erabakiak hartzeko orduan gizarte- eta inguru-men-irizpideen txertaketa sustatzea;
- Lan egiten duen tokietan jardunbide fiskal ego-kien aplikazioa bultzatzea.



Etika eta arauak betetzea

Indarreko legeria zorrozki betetzea.

Lehentasuna du MAGNAk lan egiten duen herrialde guztietan pertsonen eskubideei eta lan-zuzenbi-deari buruzko arauak errespetatzeak.

Iruzur-arloan zero tolerantziaren politika aplikatzen dugu maila guztietan. Lehia leiala eta araudi aplikagarriaren errespetua sustatzen ditugu.

Roullier Taldeak babesten dituen EGeri buruzko na-zioarteko konpromisoak partekatzen ditugu.



Gobernantza korporatibo egokia

Roullier Taldearen partaide gisa, gobernantza korporatiboaren jardunbide onenen ezarpena sustatzen dugu, konpainiaren gardentasunari, arriskuen kudeaketari eta kudeaketa etikoari lehentasuna emanaz.



Gizartearerikiko konpromisoa

Magnesitas Navarrasek hasiera-hasieratik izan du konpromiso sozial sendoa berarekin lan egiten du-ten komunitateekin.

Inguruneko enpleguaren eta garapen ekonomiko eta industrialaren eragile izateaz gain, lurraldeari lotu-tako gizarte-ekintzako estrategia ezartzen dugu.

Laguntzen jarraitu nahi dugu lan egiten dugun ha-ranen garapena erraztuko duten ekintza estrategi-koak bultzatuz.



Konpromisoa talentuarekin

Modu arduratsuan jokatzeko dugu, eragiketa gu-ztietan konpainia osatzen duten pertsonen osasuna eta segurtasuna bermatzen duten lan-baldintzak bermatuz.

Taldearen prestakuntza eta garapen profesionala babesten ditugu.

Aniztasuna eta aukera-berdintasuna sustatzen ditugu.

Pertsonalari buruzko politika gure kolaboratzaile guztien bizitza pribatuaren errespetuaren gainean oinarritzen dugu eta haien datu pertsonalen trata-mendua zintzoa eta zilegi izan dadin zaintzen dugu.



Konpromisoa ingurumenarekin

Berrikuntza sustatzen dugu ingurumen-kudeaketa-rako soluzioetan eta zerbitzuetan.

Gure helburua meatzaritza jasangarriranzko bidean aitzindari izatea da, MAGNAren ustiapen-zonak le-hengoratzeko konpromisoa nabarmenduz, ondoren-go belaunaldiei ingurumen hobea uzteko.





Magnesitas Navarras
31630 ZUBIRI, Nafarroa (Espainia)
Tel: +34 948 421 617
magna@magnesitasnavarras.es

Txosten honetako
testuak irakurgarritasun
handi-handiko iturburu
tipografikoekin osatu da:
DIN PRO eta Unbutu.

150g/m2-ko eta 250g/m2-ko estalkiko Creator Silk-en inprimatutako argitalpena. Honako ziurtapen hauek ditu:



Honen partaide gara:





ETORKIZUNA partekatzen dugu

www.magnesitasnavarras.es

